



## Jendetsua eta elikagai gozoz beterikoa izan da X. Azoka Berezia

**VILLABONA** ▶ Jende asko erakarri zuen, atzo, Irrintzi  
elkartek antolatutako Elikagaien X. Azoka Bereziak ▶ 6



Hogeita hamar bat salmenta postu izan ziren atzo; Zunbeltz elkarteak irabazi zuen isats lehiaketa. N. LIZARTZA



J. GOIKOETXEA

## Festen azken egunerako ere badago indarrik

**TOLOSALDEA** ▶ Jaien azken eguna dute gaur  
Alkizan, Bedaion eta Zizurkilen; atzokoa  
bezain «dotorea» izatea espero dute ▶ 7

TOLOSA ▶

Genero  
indarkeria  
salatzeko,  
bilkura

Bihar, 19:30ean,  
Trianguloan ▶ 6

**LANDARRI, S.L**  
Hilerrien ustiapena eta kudeaketa  
Kanposantuko Lanak

- Ehorzketak	- Hilerrien proiektuak	- Panteoiak
- Lurpetik atera	- Hilerrien eraldaketa	- Hilobiak
- Gerakinen lokualdatzea	- Eraikuntza ezberdinak	- Estelak
- Gerakinen errausketa	- Hilobi apaingintza	- Fotozamikak
- Errausketa zerbitzua	- Hilarriak	- Estanpaziozko teknikak

Santa klara, 1 behe - 20400 Tolosa      Bidasoa kalea, 7 behe - 20100 Errenteria  
Tel./Faxa: 943 67 01 14                      Tel./Faxa: 943 34 04 67 - 943 51 31 41  
Zerbitzu Iraunkorra: 610 552 552              Zerbitzu Iraunkorra: [www.landarri.com](http://www.landarri.com)

**AITZOL**  
UDAL EUSKALTEGIA

**matrikula  
zabalik  
irailaren 20  
arte**

*Euskara zure neurria*  
Euskalduntzen - alfabetatzen - EGA  
- hizkuntz eskakizunak - HABEren mailen azteketak  
euskaltegian bertan...

- Klase presentzialak: euskaltegian, enpresatan, ikastetxean, zure lantokian...
- Klase ez presentzialak (autoikaskuntza) zuk erabaki non eta noiz

Gorosabel, 34 - B • 20400 TOLOSA • Tel.: 943 65 10 06 - 943 65 23 43  
Faxa, 943 65 12 44 • E-mail: [aitzolue@tolosakoudala.net](mailto:aitzolue@tolosakoudala.net)

## UZTURRETIK ▶ KRISTINA URRUTIA

## Onddo nahaski western-a



**A**urf, jergk, aurf... Barkatu, baina ez-tulka harrapatu nauzue. Udako be-roak batetik, lehortek bestetik, eta gure auzoan harrotzen den hautsak, ez di-date batere onik egiten. Izan ere, etxeen artetik hara eta hona dabilen haizeak hauts gehiegi harrotu du azkenaldian (ez da metafora). Eta aitortu behar dut: ezinean nabil, sudurreko zuloetatik hasi eta birketaraino hautsak hartuta.

Clint Eastwooden *The unforgiven* (*Bar-kamenik ez*) pelikularekin gogoratu naiz.

Bakero batzuek prostituta baten aurpegia ezker-eskuin markatzen duteneko irudia etorri zait burura. Patxi Arrazola (edo kooperatiba) auzoa ere horrelaxe dago, goitik behera urratuta, zartatua.

Eta, momentu batez, Clint Eastwood imajinatu dut Kooperatiba auzoan, kontu eske. Kooperatibak ere Leitzako edozein auzok duen errespetu berbera behar duela aldarrikatzeko.

Baina Clint Eastwood zaharraren ordez John Wayne agertu da Ataka beltzeko kurbatik gora, kooperatiba bidean. Herritik gora, aurpegi zurbila du, ezker eskuaz zaldia soka eusten du, beste eskua, gerraldean du, gibelaren parean.

«Non dago autoritatea?» galdetu nahiean dabil, baina auzoan apenas dago inor.

Umeek ez dute espaloi bakar bat ere bizikletaz ibiltzeko. Harri kozkorrez eta zuloz betetako kamio zaharra besterik ez dugu, bukatu gabeko obren ondorioz —apustu egingo nuke New Orleans-en ere izanen dela hemen baino auzo txukunagorik!—.

Sartu da auzoan John Wayne, hau ere ez-tulka hasi da, hautsak irentsita, arf, ejtak, arf-arf, estali zaizkio hautsez sudur-zuloko. Ezinean dabil, balantzaka, zabunka, ar-nasestuka.

Etorri moduan ospa egin du JohnWaynek; hau ere badoa nazkatuta, ahituta, gure auzoa bezain gastatua. Zaldi marroren gainean, desagertu da, hautsartean, mantso, obretako langileak joan ziren bezala. Itzulerarik gabeko bidaiara non-bait.

## DATUA ▶



1.364

**langabetu eskualdean.** EUSTAT-ek, Euskal Estatistika Erakundeak, joan den ekainean argitara eman zituen datuen arabera, Tolosaldean hogeita bost urtetik gorako 1.364 lagun daude langabezia. Horietatik, 882 dira emakumezkoak, eta 482, berriz, gizonetzkoak.

## ESANAK ▶

MARIMI UDALDE  
IRURAKO ALKATEA

«Gakoa babes ofizialeko eta etxebizitza librean arteko oreka egokia da»

JOKIN BILDARRATZ  
TOLOSAKO ALKATEA

«Tolosaren berpizkundea bizitzen ari gara, ez dut inongo zalantzarik»

## WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO ▶

## Zer iruditzen zaizu Usabalgo kirolgune berria?

Oraindik instalazioak ikusteko aukerarik ez dut izan. Onddo egongo al dira hainbeste denboraren ondoren! Baina prezioak bai, horiek ikusi ditut. Denon etxeko buzoitan jaso ditugu. Zein garestiak! Egungo prezioak bikoiztu edo hirukoiztu egin dituzte. Nora goaz? Horrela bultzatu nahi al dute kirola egitea? Eta beste gauza bat: Tolosan erroldatuta egoteak ez al du abantailarik beste herri batzuetako kiroldegietan egiten duten bezala?.

MIKELTXO ▶ TOLOSA

Salneurria egokia da. Harrigarria da pertsona batzuk edozein tontakeriatarako edozein dirutza xahutzeko arazorik ez izatea —teknologian edo parrandetan—, eta gero euro bakoitzari begira ibiltzea kiroldegira joateko orduan. Patetiko.

FLANA ▶

Ni Villabonakoan nengoen ize-na emanda: hura hilean 23 euro ordaintzen genuen. Orain, Tolosakoa zabaldu dutenean, kuota 18 eurora jaitsi digute, eta bi kiroldegia erabili ahal izango ditugu. Alde horretatik, portatu da Kirolzer, instalazioen gestioa daraman enpresa.

JOXE ▶

Nik Igarondora joateko hogeit bainuko bonoa erosi nuen iaz. Igerilekua itxi dutela, egun batzuk geratzen zaizkit oraindik txartelan. Baina Usabalgo kiroldegi berrian ez dit horrek ezertarako balio. Hau da, nik ordaindutakoa ez didatela itzultzen. Ezta bonoarekin geratzen zaizkidan hainbat egunetan Usabalen doan sartzeko aukera ematen ere. Lotsagarria iruditzen zait, benetan. Aurretik ordaindutakoa berri ordaindu behar al dugu, ba? Ez dut uste horrelakorik gertatu zaion pertsona bakarria izango naizenik. Arazo horri irtenbide bat ematea eskatzen diot Udalari, Kirolzer enpreari edo dagokionari.

MIREN ▶

Nesken aldageletan, dutxetan, toailak zintzilikatzeke pertxak edo faltan botatzen ditut. Bestela, dena ondo. Barruko igerilekua primerakoa igeri egiteko. Kanpokoa txiki samarra egin zait.

MIREIA ▶

Instalazio guztiak ibiltzeko asmorik ez baduzu oso garesti ateratzen da Usabalara joatea, uste dut tarifak jaisteko modua aurkitu beharko luketela.

IZAR ▶

Lotsagarria iruditzen zait Donostiako Kirol Txartelaren kostu bikoitza izatea, eta gainera bertan eskaintzen dizuten zerbitzua ez da txarragoa —Donostiako igerileku guztietan sartzeko aukera, gimnasioak...—. Prezio hauekin, kirola egitea pribilegiatu batzuen esku geratuko da, eragin zuzena du Udalak daraman pribatizazio politikak.

KIROLARI BAT ▶

Nire ustez, garestia izateaz gain, adibidez, guraso garen guztiok eta haur txikiak ditugu-

nok ez dugu leku handiegirik umea lasai ibiltzeko. Eta prezio-ena oso lotsagarria da.

TOKTOK ▶

Ba, utzi zure seme-alabak *play station*-en edo *Gaztetxean*. Eta kitto, kiroldegia aurreztuko duzu.

-&gt;

Niri tarifak oso garestiak iruditzen zaizkit. 18 bat euro hilean ordaintzea ez da garesti, baina kiroldegiko zerbitzu guztiak erabiliko badituzu. Adibidez, igerilekua aprobetxatzen baduzu bakarrik, garestitxo ateratzen da. Ezin al da tarifa desberdinak jarri? Egungo sarre-rak bai direla garesti: hilean hirutan joaten banaiz igerilekura, ja ari naiz ordaintzen urteko bonoa hilabetean kostatzen ari zaitena. Horrela, bieta-ko bat: edo denak bazkide egitea lortuko dute, edo askok eta askok etsi eta ez dugu Usabal kirolgunea erabiliko. Kirola egitea bultzatu nahi badu Udalak, bidea hau ez dela iruditzen zait.

IÑAKI-TOLOSA ▶

- ▶ hilberriak
- ▶ urteurrenak
- ▶ eskertzak

Gipuzkoan  
50.000  
etxetara

**ESKELAK**  
19:00ak arte hartzen dira  
Telf.: 943 65 56 95  
tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info

HITZA guztietan prezio beragatik

KOMIKIA ▶

GORKA SALABERRIA



IRITZIA ▶ AITZIBER AIERDI ETA BEATRIZ ECEIZA (TOLOSAKO LASKORAIN IKASTOLAKO ORIENTATZAILE TALDEKO KIDEAK)

## Eskolara itzultzea

Urtero bezala, lanean hasteko garaia iritsi da. Uda lasaia eta erlaxatua pasatu ondoren, berriro eginbeharretara bueltatzea batzuei oso gogorra egiten zaie, opor osteko estresa deritzona.

Aurten komunikabideetan ikusi izan dugunez, zenbait enpresatan sonbrila, hondar pixka bat... jarri izan dituzte aldaketa hain bat-batekoa izan ez dadin. Esajeratu samarrak izan ote diren pentsatu izan dugu denok; imajinatzen duzue ikasleren edo irakasleren bat gelan sonbrila baten azpian eskolak ematen edo eskolak hartzen? Egia esan, ez da egokiena!

Ikasleen kasuan ere eskolara bueltatzeko esfortzu bat supozatzen du. Hala ere, adinaren arabera modu desberdinean eragiten die eta bizitzan dute.

Ikasle batzuek lehen aldiz zapalduko dute eskola. Haiei mundu berri bat eraikiko zaie. Gure txikitxoek ari gara, noski. Hauek lehen aldiz bere adineko kideekin espazio bera okupatuko dute, besteekin elkartrukatetarako etengabeko dituzte, gela batetan egoten den material guztia arakatu eta esperimentatu ahal izango dute. Baina hasieran honek guztiak ez die ezer esaten, haien aitari edo amari itsatsiak egotea besterik ez dute nahi. Larriturik, beldurturik eta noraezan aurkitzen dira. Zer egin honen aurrean?

Lehenik, kontuan izan behar dugu eskola hitza behin eta berriz aipatzea ez dela positiboa. Haurrak ez daki zer den, ez du eskola ezagutzen, eta hainbeste azpimarratuz gero, umea beldurtu egin daiteke, helduok garrantzi gehiegi eman diogulako

ikasleak lehen aldiz eskolara joateari. Komenigarria litzateke eskolara lehen aldiz joateko ikasleak behar duen materialaren aukeraketan haurrak parte hartzea. Oso garrantzitsutzat jotzen dugu, eskolak markatzen duen bezalaxe, egokitze prozesua betetzea, haurarentzat egokiena baita.

Haurra eskolara sartu ondoreneko agurra motza izan behar du, besarkada goxo bat, haurrari lasaitasunez eta angustiarik gabe handik denbora batera bila zein etorriko den adieraztea. Posible den neurrian ama edo aita etorri beharko lirateke.

Egokitze prozesuaren hasieran, batez ere, normala izaten da haurraren batek edo bestek atzerapenak egitea: lo oneko haurrei loa atzeratzea, jatun onak direnak okerrago jatea... Hau guztia gurasoek normaltasunez hartuz gero, eta jarrera horiek ez badituzte indartzen, denbora motzean desagertzen da.

Beste guztiei, berriz, oporrak egun osoan etxekoan ondoan pasatu ondoren, haien lagunak ikusi, irakaslearekin ikasturteko lehen solasaldia egin, irakasle berria ezagutu eta eguneroko lanetara bueltatzea suertatzen zaie. Aldaketa hau nahiko zaila egiten zaie, batez ere gurasoek etxetik kanpo lan egiten badute, eta ordutegi luzeak badituzte. Aldaketa hori hain zaila ez dakiekin egin, zenbait jarrera hartzea komenigarria litzateke:

Naturaltasunez adierazi berriro eskolara bueltatu behar dutela, haien lagunak ikusiko dituztela, gauza berri asko ikasiko dituztela. Adin hauetan garrantzitsutzat jotzen dugu haurra den baino niniagoa ez

tratratzea. Lehen aipatutako gomendioak ondo datozkie hemen ere.

Nagusiagoak direnak. Lehen Hezkuntzakoak, normalean gogoz bueltatzen dira. Lagunekin harreman onak, soziabilitate egokia, ikasketetan poliki eta guraso asertiboak baldin badituzte —normaltasunez inongo urduritasunik eta intsegritatez gabe seme-alabak animatzen dituztenak— ez dute inongo arazorik izango eskolara bueltatzeko.

Bigarren Hezkuntzako ikasle batzuen artean urduritasunak eta intsegritateak sor daitezke, batez ere, oporretako azkeneko egunetan, ikaslearen pertsonalitatearen arabera: zer espero duen, norekin aurkituko den, gai izango al den ikasturte hau aurrera eramaten... Mamu asko ager daitezke. Hori guztia ekiditeko onena animatzea eta laguntzea da, seme-alabari jakinaraztea zenbat balio duen, eta bete ditzazkeen helburu guztiak aipatzea sekula gehiegi presionatu gabe.

Batxilergoan dauden ikasleak, adina dela eta, argiago dute zer lortu nahi duten; eta nahiz eta martxan jartzea zaila egin, behin astebete pasatu ondoren, lanean normaltasunez dihardute.

Orokorrean, atsedenetik eta lasai egotetik lanean haserako aldaketa oso bat-batekoa da. Gorputzak egokitze prozesu bat egin beharra dauka. Prozesu hori mailakatu izatea komeni da, eta horretarako egokia litzateke lanari ekin baino egun batzuk lehenago honen alderdi positibo guztiak geure buruari azpimarratzea. Gure osasunak eskertuko du eta.

BI HITZETAN ▶  
ENRIQUE AZURZA  
(ABESBATZA ZUZENDARIA)

## «Abesbatza lehiaketarako balio dezake Usabalek»



L. MONTES

Julen Goikoetxea ▶ Bi hilabete baino gutxiago falta dira Tolosako Abesbatza Lehiaketarako. Leidor bota dutela eta, Usabal kirolgune berriak hartuko du aurtengo edizioa. Lekua aproposa den ala ez eta zer egokitzapen egin behar den ikusteko, besteak beste, eta Tolosako Ekinbide Etxearekin (TEE) elkarlanean, Hodeiertz abesbatzak kirolgunean entseatu du aste honetan. Saio horren berri eman dio HIZZARI Enrique Azurza zuzendariak.

**Leidorren akustikarekin kezu zen bat baino gehiago. Usabalek beteko al du ga-bezia hori?**

Akustika aldetik ez da guztiz egokia, baina balio dezake. Adibidez, gertu du errepi-dea, eta zarata hotsa nabaria da areto barrutik ere; baina hormetan panel batzuk jartzeari aurreikusitako dugu, eta uste dugu horrela arazoa konponduko dela.

**Abeslariak zer diote?**

Ni gustura irten nintzen entsegutik, eta haiek ere nahiko pozik ziren. Leku egokia iruditzen zait.

**Aretoa hutsik zegoela entseatu duzue. Jendez betez gero gauzak oso desberdinak izango dira, ezta?**

Kiroldegia, beste edozein areto bezala, jendez betetzean, asko aldatuko diran baldintzak. Baina hori aurretik ere bagenekien. Antolatzaileek kontuan hartu dute, eta zenbait neurri hartuko dituzte: lurrean zerbaite jarri, hormak panelekin estali... Hemenetik aurrera probak egingen jarraituko dugu, orain arte abesbatzak izan duen kalitatea bermatzeko.



## TOLOSA ▶

Eskaintza  
ugaria eta  
berrikuntzak  
atzoko azokan

Onddo eta perretxiku kantitatea izan da ezaugarriarik aipagarrienetakoa

PABLO ALBERDI

Azoko azoka eguna alai eta ikusgarria suertatu zen: eguraldiak zeharo lagundu zuen eta, horrez gain, ikusitako eskaintza ere oso zabala izan zen.

Aipagarria, izatekotan, bertan aurkeztu zen barazki zerrenda askotarikoa eta onddoen eta perretxikuen kantitate izugarria. Azken egun hauetako eguraldia benetan laguntza handikoa izan da gure mendientzat, eta perretxikuen kolpea izugarria izan da. Halaxe erakutsi zuten, behinik behin, atzoko azokako erakus-mahaietara agertu ziren ia 400 kilo ondok, 10 eta 18 euro bitartean saldu zituztenak; gibelurdina ere, asko jarri zuten salgai, 20 eurotan salduz; eta ziza horia ere ugari, 15 eurotan.

Barazki eta fruituen arloan ere berrikuntzak izan ziren: aurtengo aurreneko Errezil-sagarrak, pikuak, errege-sagar zuria, kanadiarra, eta konferentzia udarea, hain zuzen ere. Barazkietan, berriz, brokolia eta Tolosako babarrun berria lekatan, azak, tomateak, porruak, lekak, eskarolak edota borraja, besteak beste.

## ATZOKO AZOKA ▶

	merk.	gares.
<b>Berdura Plaza</b>		
Erromeroa	4,00	6,00
Salbia	1,00	1,20
Perrexila	0,05	0,06
Leka landarea	0,35	0,40
Aza kizkurra	6,00	-
Porru landarea	2,40	-

## Bertako produktuak

Antzarak	11,00	12,00
Tomatea	2,00	2,50
Kalabaza	1,50	3,00
Azenario sorta	1,20	3,00
Iragasagarra	3,00	6,00
Ardi gazta	11,00	-

## Produktu ekologikoak

Kalabaza	1,60	3,04
Baratzuriak	1,60	6,00
Tipula	1,75	2,00
Aza	2,50	3,00
Mermelada	3,00	3,60

## VILLABONA ▶ AZOKA

Villabonako X. Azoka  
Berezia: jendetsua eta  
elikagai gozoz betea

Eguraldia lagun zutela egin zuten, hamargarren urtez, Irrintzi elkarteak antolatutako Elikagaien Azoka Berezia

NEREA LIZARTZA

Jende ugari bildu zen atzo Villabonako Errebote plazan egin zen X. Azoka Berezira. Hala ere, ez zen gutxiagorako; eguraldia lagun izateaz gain, produktu mordo baitzegoen salgai eta ikusgai. Hogeita hamar salmenta postu inguru zeuden. Eskualdeko saltzaileez gain, Euskal Herriko eta Espainiako beste hainbat txokotatik etorritakoak ere baziren, hala nola, Bizkaikoak, Arabakoak eta baita Errioxakoak ere.

Irrintzi elkarteak hamar urte daramatza azoka hau antolatzen. Uztailean Villabonan egiten den Garagardo Azoka ere eurek antolatzen dutenez, bertan ateratzen duten diruaz eta Udalak ematen dien diru laguntzaz baliatzen dira azokaren antolaketarako.

Villabonako kultura zinegotzi Asier Vitoria aritu zen sariak banatzen Irrintzi elkarteko presidentearekin eta hainbat kiderekin batera. Antolatzaileek adierazi zuten iaz baino maila baxuagoa nabari zela elikagaien alorreko lehiaketan. Halere, ez zitzaizen erraza egin irabazlea hautatzea.

Baina, elikagaien azoka ez zen eguneko berri bakarra izan; urtero egiten den isats lehiaketa ere atzo egin baitzen. Uxo-toki elkarteko kide Iñaki

## SAILKAPENA ▶

## ELIKAGAIEN AZOKA

- 1. Errezilgo azoka.** 180 euroko diru saria. Denetako produktuak.
- 2. Pagagorria.** 120 euroko diru saria. Denetako produktuak.
- 3. Luis Osa.** 90 euroko diru saria. Gozogintza.

## ISATS LEHIAKETA

- 1. Zumbeltz.** Villabonako elkarteak.
- 2. Beharzana.** Villabonako elkarteak.
- 3. Uxo-toki.** Amasako elkarteak.

Iraolak adierazi zuenez, maila handia izaten da isats lehiaketan. Gainera, Amasako elkarte honek urtero hartu ohi du parte eta hainbat sari ere irabaziak ditu, besteak beste, aurtengo jaso duen hirugarren postuko saria.

Hamar elkarte aritu ziren lehian: Villabonako Zumbeltz, Beharzana eta Irrintzi; Amasako Uxo-toki; Zizurkilgo Ibaieritz eta Urkamendi; Adunako Txulobi; Asteasuko Aitzondo eta Santamaña; eta Larraulgo Katillutxo. Azkenik, Villabonako Zumbeltz elkarteak suertatu zen garaile. Lehiaketaren ostean, parte-hartzaileak eta hainbat herritar Irrintzi elkartearen bildu ziren bazkaltzera.



Uxo-toki elkarteak hirugarren gelditu zen isats lehiaketan. NEREA LIZARTZA

## TOLOSA ▶

Genero  
indarkeriaren  
aurkako  
kontzentrazioa

Miarritzeko erahilketa salatzeke ekitaldia antolatu dute biharko Tolosan

N. LIZARTZA

Pasa den ostegunean, hilak 8, Miarritzeko mutil-lagun ohiak erahil zuen hogeita bederatziko neska gaztearen heriotza salatzeke, Tolosaldeko Emakumeen Mundu Martxarako plataformak kontzentrazioarako deia egin du.

Hitzordua bihar, hilaren 12a, Tolosako Trianguloan izango da, 19:30ean. *Emakumearen aurkako indarkeria aurre egin!* lelopean burutuko da salaketa ekitaldia. Antolatzaileek jende guztiari bertaratzeko deia egin nahi diete.

## TELEFONOAK ▶

Larrialdiak. ((112))  
Osasuna.

- ▶ **Alegialdea.** Osasun z.: 653212
- ▶ **Anoeta-Alkiza-Hernalde.**
- Medikua: 65 23 39
- ▶ **Asteasu.** Medikua: 692423
- ▶ **Baliarrain.** Medikua: 889003
- ▶ **Berastegi-Elduain.** Medikua: 683361
- ▶ **Bidegoian.** Medikua: 681134
- ▶ **Ibarraldea.** Osasun ebea: 672411
- ▶ **Ikaztegieta.** Medikua: 653329
- ▶ **Irura.** Osasun zentroa: 690720
- ▶ **Leitza.** Osasun z.: 948 510800
- ▶ **Orendain.** Medikua: 655595
- ▶ **Orexa.** Medikua: 682228
- ▶ **Tolosa.**

- ▶ Anbulatorioa, larriald: 461111
- ▶ San Esteban: 006800
- ▶ Gernikako arbola: 006900
- ▶ Amaroako dispen.: 672637
- ▶ Asunzion klinika 675799 - 67 53 90 (larrialdiak)
- ▶ DYA: 672536
- ▶ Gurutze Gorria: 674888
- ▶ Villabona. Anbulat.: 006970
- ▶ Zizurkil. Aitzondo zerb.: 693930

## Garraioak.

- ▶ Renfe: 902 24 02 02
- ▶ Donostiako autobusa: 361740
- ▶ Tolosaldea bus: 650621
- ▶ Leitzaran autob.: 948 221015
- ▶ Taxia: 670420
- ▶ Taxia (Leitza): 608 873016

## Besterik.

- ▶ Ertzaintza: 538820
- ▶ Tolosa-Udaltzaingoa: 675858
- ▶ Tolargi: 650016
- ▶ Iurrumendi egoitza: 670325
- ▶ Tolosa gasa: 675320

JAIK ▶

# Azken txanpa, baina hala ere ez okerrena

Gaurko antolatu dituzten ekintzekin agurtuko dituzte jaiak eskualdean

JULEN GOIKOETXEA

Dotorea. Horrelaxe definituko dute hainbatek atzoko eguna. Izan ere, jaietan diren bailarako herrietan egun paregabe batez gozatzeko aukera izan zuten. Eguraldia lagun, goizetik askotariko ekintzak egiteko aukera izan zuten Alkizan, Zizurkil eta Bedaion.

Lehen herri horretan izan ziren goiztiarrenak. 10:30erako, bizikletaz eta haurrez beterik zen herriko plaza. Kaskoa buruan zutela eta ilusioz beterik hartu zuten parte haientzat antolatuta zeuden txirrindulari lasterketan eta toka txapelketan. Mailatan banatuta, gogo biziz jardun zuten gaztetxoek garaipenaren bila. Arratsalde partean, herriko gazteen artean herri kirol saioa egin zuten Ion Zabala zenaren omenez. Gauean, berriz, beste herri kirol saio bat izan zen ikusgai. Aizkolarien eta harrijasotzaileen erakustaldiaz gozatzeko aukera izan zuten bertaratu zirenek. Ondoren, rock kontzertu ikusgarri bat entzuteko aukera izan zen Alkizan. K.S., Kauta eta Mendeku Itsua taldeen doinu gogorrek berotu zuten gaua.

Zizurkil ere goizean ekin zioten egunari. Buruhandiek gaztetxoek atzetik igaro zuten goiza. Garai berean, lore lehiaketa izan zen Joxe Arregi plazan, eta oso landare ederrak eta bitxiak ikusi ahal izan ziren bertan. Eguerdian partean, halterofilia erakustaldia izan zen, eta herri bazkarian elkartu ziren goizeko ekintzak ikusi zituztenak eta bezperan berandu erretiratu zirenak. Arratsaldean ardi txakurren erakusteta izan zen ikusgai, eta gau partean kolorez bete zen Zizurkil. Izan ere, mozorro gaua antolatu zuten, eta horretaz aparte kale antzekia eskaini zuen Markelife taldeak. Ondoren, Disko Top-en eskutik momentuko doinuekin dantzatzeko aukera izan zen.

Bedaion ere izan zuten festarako aitzakia. Arratsalde, ume jolasak izan ziren pilotalekuan, txikien gozamenerako. Bertan bildu ziren gaztetxoek mota askotako jolasak, zaku karrera

## EGITARAUA ▶

### ZIZURKIL

**Gaur, igandea.**

**09:00.** Diana, Loatzo musika eskolako bistulari taldearen eskutik.

**11:00.** Zizurkilgo V. Kros Herrikoa. Ondoren, hamaiketakoa.

**13:15.** Errenteriako Landarbaso abesbatzaren kontzertua Arantzazuko Amaren Elizan.

**17:00.** Buruhandiak.

**18:00.** Herri kirolak herritarren artean. Zaharren eta gazteen arteko norgehiagoka.

**20:30.** Huauchinango-koi Mariachi Perla.

**23:00.** Nekin taldea.

### ALKIZA

**Gaur, igandea.**

**10:00.** Meza nagusia.

**10:15.** Pilota partiduak: Gazteen Arteko XV. Txapelketako finalak.

**17:30.** Txirri, Mirri eta Txirribiton junior pailazoan saioa.

**Ondoren.** Ikaztegetako dantza taldea.

**Ondoren.** Imuntzo eta Belokirekin erromeria.

### BEDAION

**Gaur, igandea.**

**11:00.** Meza nagusia.

Ondoren, hamaiketakoa Artubi elkartearen.

**13:00.** XVI. txirrindulari igoera. Bazkal ordura arte, Elena eta Mirari trikitaliak.

**Arratsaldean.** Herri kirolak: Aimar Irigoien harrijasotzailea eta aizkolariak.

**Ondoren.** Bedaioko Ingurutxo eta Arratiako jota.

**Iluntzean.** Jaietako amaiera emateko, Elena eta Mirari trikitaliak.

kasu, egiteko aukera izan zuten. Iluntzean, aldiz, herri afaria egin zuten Artubi elkartearen, eta gauean Elustondo anai-arreben eskutik heldu zitzairen bedaiorrei zein bertara joandakoei gorputza dantzan jartzeko aukera paregabea.



Alkiza. Txirrindulari gazteen lasterketan, parte-hartzaile bat irteera hartzen, atzo. J. GOIKOETXEA



Bedaion. Ume jolasen barruan egin zen zaku lasterketaren une bat. J. GOIKOETXEA



Zizurkil. Lore lehiaketan parte hartu zuten landareetako batzuk ikusgai. J. GOIKOETXEA

## Gertaera tristea Zizurkil

Ostiral arratsaldean ezbehar bat gertatu zen Zizurkil. Gizon bat itota agertu zen Oria ibaian, oraindik argitzeke dauden arrazoiengatik. Lekukoen arabera, gizona bat herrian zehar zoruaren azpitik doan erreka zatian sartu zen. Erreka hori Oria ibaian amaitzen da, handik metro gutxira, eta han agertu zen bere gorpua. Herri-

tarren hitzetan, hildakoa ez zen ingurukoa, eta oraindik ere ez diote gertatutakoari azalpen logikorik aurkitzen. Gertaera latz horrek atzo arratsaldeko giroa pixka bat hoztu bazuen ere, Zizurkil jai giroa nagusitu zen berriz ere iluntzerako.

Gertaerak gertaera, jaien azken orduak geratzen dira oraindik. Beraz, biharko jai eguna aprobetxatu nahi izanez gero, ez geratu etxean.

## iragarki laburrak ▶

### LANA

**Eskaintza.** Informeak dituen eskarmentu handiko 34 urteko emakume eskaintzen da, ebeko lanak egin eta haurrak zaintzeko.

**Arotza.** Arotzeria metalikoko muntatzaile batek ikastuna behar du. 665 70 09 79ra deitu.

**AGENDA ▶**

**IRTEERAK**

**Villabona.** Aizkardi Mendi Elkartek Pirinioetara irteera antolatu du irailaren 17 eta 18rako. Izena emateko deitu 943 69 44 58ra edo egoitzara azaldu, ostegunetan, 21:00etatik 22:00etara.  
**Tolosa.** Ibañeta-Luzaide mendi irteera antolatu du Alpino Uzturrek hilaren 17rako. 6 orduko ibilaldia da. Izen-ematea hilaren 16a arte, elkartean (Gudari 5, behe, 943 65 27 89).  
**Tolosa.** Iturriza jubilatutako elkartek San Migelera irteera antolatu du, irailaren 29rako. Prezioa 26 euro (bazkide ez direnentzat 30 euro). Izen-ematea, elkartean (Euskal Herria plazako egoitzan) egin daiteke, hilaren 28a arte.

**LEHIAKETA**

**Zizurkil.** Udalak umorezko bakarriketa lehiaketa antolatu du. Euskaraz eginak, orijinalak eta 500-700 hitzekoak izan behar dute lanek eta hilaren 15erako aurkeztu behar dira, Aurrerako udal bulegoetan. Azken egunak. Sariak: 500 euro lehenak, 300 euro bigarrenak eta 150 euro herriko lehenak.

**MATRIKULAZIOA**

**Tolosa.** Aitzol udal euskaltegiak matrikula epea zabalik du hilaren 20a arte. 10:00etatik 13:00etara eta 17:00etatik 20:00etara.

**GUARDIAKO FARMAZIAK**

**Gaur**  
**Tolosa.** Bronte, C. Korreo kalea, 20. 943 36 60 13  
**Leitza.** Erbiti, O. Lizarraga, 7. 112

**Bihar**  
**Tolosa.** Morant, R. Zabalarreta, 1. 943 67 38 49  
**Leitza.** Gimeno, A. Elbarren, 52. 112

▶ **HITZA** ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

# Partidu polit askoak

**LEITZA ▶** Leitzako I. Pilota Txapelketa jokatzeko ari dira maila guztietako pilotariek; jokaldi polit asko eskaintzen ari dira denak



GAZTEENAK ARITU ZIREN ATZO GOIZEKO LEITZAKO TXAPELKETAKO FINAL-LAURDENETAKO JARDUNALDIAN. JAIONE ASTIBIA

**JAIONE ASTIBIA**

**G**aur goizean, 09:30ean hasita, jokatu dituzte final-laurdenetako azken saioak, Amazabal pilotalekuan, Leitzako I. Eskuz Binakako Pilota Txapelketaren baitan. Hiru partiduko jokatu ere, parte hartzen ari diren maila heldunetakoak, hain zuzen ere: Idoate-Madariaga eta Iturrioz-Madariaga, kadetetan; Larrañaga-Iriarte eta Andreu-Gorro-

txategi, gazteetan; eta Olazabal-Irurera eta Arraztoa-Gartzia helduetan. Azken bi partiduetan bertako ordezkarien parte-hartzea nabarmena da, Iriarte partiduko batean eta beste-tan Olazabal eta Gartzia, «nahiz hau ez den Aurrerako taldekoa», zehaztu zuten, ikusteko aukera izanen baitute bertara joaten diren pilota zaleek. Antolatzaileen esanetan, gainera, «bertako jendearentzat erakargarria ere izanen

delakoan gaude». Hemendik aterako dira, beraz, finalerdietarako azken bikoteak. Bitartean, atzo eta herenegun ere txapelketako beste bi jaialdi jokatu ziren; ondorioz, finalerdietarako txartela eskuratu zuten hainbat bikoteren izenak ezagun dira dagoneko. Ostiralekoan, helduenak aritu ziren lanean, ikusle franko bertaratu eta «pilotalekuan giro polita sortu zen, bertako pilotariak aritu baitziren», na-

barmendu zuten antolatzaileek atzokoan. Eta sailkatu ere, halaxe egin ziren, irabaztun atera baitziren. Hontax emaitzak: Narbarte-Berjeras 20, Sagastibelza-Gartzia 22, (aurrelaria leitzarra da); Joldi-Beloki 18, Narbarte-Uzkudun 22; eta Bengoetxea-Iparragirre 22, Aitzugarai-Apeztekoa 8, (kasu honetan biak dira herrikoak). Orohar partiduko lehiakorrak izan ziren, borroka handikoak, eta tanto ikusgarriak egindakoak; azken partidua, Apeztekoa ez omen zuen bere eguna izan eta, piska bat motelago izan zen.

Gainerakoek atzo jokatu zuten, eta partiduko politik egin zituzten, honako emaitzak hauekin: Iparragirre-Dario 5, Untxalo-Aizpuru 18 eta Olano-Altuna 18, Galarraga-Mariekurrena 7; Joldi-Arizmufio 18, Agirre-Zelaia 11 eta Labaka-Apeztegia 10, Etxeberria-Beraza 18; Ezkurdia-Aizpuru 18, Loidi-Otaegi 11 eta Sukia-Mujika 5, Jaunarena-Iraola 18. Maila hauek ere, Olano eta Jaunarena, bata aresoarra eta bestea leitzarra dira.

Hurrengo asteburuan txapelketako finalerdiekin ekin die. Animo!

**AGURRAK ▶**



**URTE ASKOAN**  
**Ibai Amundarain (Amezketak).** Gaur 7 urte. Zorionak famili guztien partetik, batez ere zure anaia Harkaitzen partetik.



**URTE ASKOAN**  
 Oier Saldias (Anoeta), Bihar 4 urte. Zorionak, korrikalari!!

**HITZA,** zorion agurren tarteak

Urtebetetzeak, urrezko ezteiak, ezkontzak, jaioberriak... zoriontzeko, etorri:

HITZAren egoitzetara: Araba etorbidea, 5 behea - TOLOSA  
 Udalteko bulegoa - LEITZA

Mesedez, argazkia bi egun lehenago ekarri. Mila esker!

**www.saldias-miguel.com**

**Saldias Miguel**

Kotxe aseguruetan %60 ko beherapenak

• AUTOAK • ENPRESAK • AUTONOMOAK • MOTOAK • DENDAK • MOTA GUZTITAKO • ETXEA • ISTRIPUAK • ASEGURUAK

Nafarroa Etorbidea, 12 behea • 20400 Tolosa • Tel. 943 651189/ 943 653462 - Faxa: 943 653462